



Kalapie
Hiriko txirrindularien elkarte
Asociación de ciclistas urbanos/as
Iparraguirre, 8
E - 20001 Donostia - San Sebastián
T (+34) 629 271 481

kalapie@kalapie.org
www.kalapie.org

2013ko Kalapieren memoria

Hitzaurrea

Kalapie Hiriko Txirrindularien Elkarteak 2013 urtean zehar burututako jarduera bere kideei, txirrindulariei, administrazioari eta, oro har, jendeari jakinarazi nahi die. Memoria honen bitartez ikusiko da ahalegin handia egin dugula; hala ere, ahaleginak merezi izan du txirrindulariek gure proposamenei erantzun positiboa eman dietelako.

Egoitza berria zabaltzeak gure kideengandik eta, oro har, txirrindulariengandik hurbilago egoteko aukera eman digu, eta bizikletaren sustapenarekin erlazonatutako era guztietako ekintzak egin ahal izango ditugu, besteak beste: hitzaldiak, mintegiak, bizikletan ibiltzen ikasteko ikastaroak, mekanika ikastaroak, bizikleta-dendekin bilerak, eta abar.

Beste ekintza garrantzitsu bat URAk eta Udalak Urumea ibaia Martutenetik igarotzean bideratzeko aurkeztu duten proiektuaren aurrean Kalapieren proposamen alternatiboa izan da. Proiektu honetan auzoko elkarteekin batera lan egin dugu eta, Kalapietik proposatutako helburu guztiak bete ez diren arren, ahaleginak esku-hartze mota honen gaineko hausnarketa kritikoa planteatzeko balio izan du; izan ere, proiektuari hobekuntza hidraulikoez gain Urumea ibaia jolas-gune gisa, oinezkoen eta txirrindularien ibilbideen ardatz gisa, edota balio natural eta kultural handia duen ingurune gisa nabarmentzeko eskatu behar zaio.

Kalapietik proposatuta, Olatu Talka programaren barruan bizikleta bide bat egin da,

...
Lan egiten dugu / Colaboramos con:

konoz 17.000
y queremos ser
17.000 gero, eta
izan nahi duguz
10.000[€]



Donostia 2016 fundazioarekin eta herri-elkarte askorekin batera. Aurreko bi urteetako arrakasta handiak bizikleta bidea iraunkor bihurtu arte proiektu honekin jarraitzera animatzen gaitu.

Derrigorrezko kaskoaren aurkako txirrindulari martxak, hilean behin 55 urtetik gorako txirrindulariekin martxak, probintziako leku ezberdinetarako txangoak eta, mugikortasunaren astean, hainbat ekintza ezberdin antolatu ditugu.

Gure webgune berriak eta gizarte sareetan gehiago parte hartzeak urtean zehar txirrindulariengandik hurbilago egoteko aukera eman digute.

Honako hauek dira Kalapien urtean zehar landu dituen eta memorian zabal garatuko ditugun ardatz nagusiak.

Azkenik, gure elkarteak 2014ean 25 urte betetzen dituela aipatu nahi dugu. Urteurren honek bultzada hartzeko eta 2014 honetan bizikletaren alde lan egiten jarraitzeko balioko duela espero dugu.

- **Bizikleta Kalapieren lokal berrian, Iparragirre 8: sustapen hitzaldiak, bilerak eragile ezberdinekin, eta abar**

2013 urte honetan Kalapieren lokal berria ireki da Iparragirre 8 helbidean: "Bizikletaren etxea". Horri esker mugikortasunarekin eta bizikletarekin erlazionatutako hitzaldi eta jarduera ezberdinak antolatu ahal izan dira. Honako hauek izan dira, besteak beste, antolatutako jarduerak:

- Donostiako Masa Kritikoarekin bildu ginen hiriaren mugikortasunaren eta Fixed Gear kulturaren gainean elkarrekin hausnartzeko. Urtarrilak 15.
- Kideentzako informazio hitzaldia Fiare-Banka etikoarekin. Martxoak 26.

- Lokal berriaren irekiera: besteak beste, Kalapieren helburuen eta lantzen ari ziren proiektuen gaineko informazio hitzaldi bat egin zen. Halaber, bizikleta sustatzeko Kalapie egindako bideoa aurkeztu genuen: <http://www.youtube.com/watch?v=FqeITrBh0iQ&feature=youtu.be>. Apirilak 25.
<http://www.kalapie.org/nodo.php?ID=477>. Eta bertaratutakoei “Urumea bideratzeko proposamenaren aurreko hautabidea” eta “Egia oinez eta bizikletaz” erakusketak azaldu zitzaizkien.
- ConBici-k Gasteizen 2013ko maiatzaren 2tik 5era antolatu zuen X. Bizikleta eta Hiria Kongresu Iberikoa prestatzeko bilera <http://conbici2013.blogspot.com.es/>. Apirilak 12.
- Kalapieko hamar pertsonak ConBici-k Gasteizen 2013ko maiatzaren 2tik 5era antolatu zuen X. Bizikleta eta Hiria Kongresu Iberikoan parte hartu zuten. Maiatzak 4. <http://conbici2013.blogspot.com.es/>
- Ibilbideak Eusko Jaurlaritzaren proiektuaren gaineko informazio hitzaldia, proiektuaren koordinatzaile den Mikel Bringasen eskutik. Maiatzak 14. <http://ibilbideak.euskadi.net/ibilbideak/home.do?locale=es>
- Hirian kaskoaren erabileraren derrigortasun polemikoari buruzko hitzaldia. Martxoak 19. Kanpaina irrati-etxe eta prentsa idatzi ezberdinetan.
- Martutenen Urumea ibaia bideratzeko URAREN eta Udalaren proiektuaren aurrean Kalapie proposatzen duen proiektu alternatiboaren gaineko informazio hitzaldia.
- PP taldearekin bildu ginen Martutenen Urumea bideratzeko proiektuaren inguruan. Maiatzak 22.
- PSE taldearekin bildu ginen Martutenen Urumea bideratzeko proiektuaren inguruan. Maiatzak 27.
- Jesús Alquezarrekin bildu ginen Kalapieren eta Club Vasco de Camping elkartearen

arteko lankidetzaren inguruan. Ekainak 2.

- Unibertsitatearekin bildu ginen, unibertsitateko jarduera osagarrien barruan, bizikletaren mekanikari buruzko ikastaroa prestatzeko.
- Udaleko Mugikortasun Sailarekin batera, Zuricheko mugikortasun iraunkorraren eta garraioaren gaineko hitzaldia antolatu genuen. Irailak 7.
- “STOP accidentes” elkartearekin bildu ginen trafikoak eragindako istripuei buruzko jardunaldi bat antolatzeko. Azaroak 14.
- Kalapieren historiaren eta Donostiako zein Gipuzkoako mugikortasunaren gaineko lanak egiten hasteko bilera.
- Donostian bizikletaren sustapenari buruzko bideo bat prestatu genuen.

<http://www.youtube.com/watch?v=FqeITrBh0iQ&feature=youtu.be>

- **Olatu Talka 2013: Donostia-Zubieta Ziklobia**

Olatu Talkaren 2012ko edizioan, Kalapiek Donostia 2016 fundazioarekin batera Urumeako Ziklobia antolatu zuen, Loiola eta Martutenetik igarotzen den errepidea itxiz. Esperientzia honen emaitza onak amore eman zigun 2013an Zubieta eta Donostia elkartzen dituen errepidea itxiz aurrerapauso bat emateko.

- Kalapie eta Olatu Talkaren antolatzaileen arteko bilera. Donostia eta Zubieta elkartzeko egin litekeen ziklobiaren trazaduraren proposamena landu zen. Otsailak 8.
- Kalapie eta Olatu Talkaren antolatzaileen arteko bilera Kalapiek zehaztutako trazaduraren inguruan. Apirilak 3.
- Larrotxeneko eskolarekin elkarlanean aritu ginen Donostia 2016 fundazioak Ziklobia kontzeptua azaltzeko bideo txiki bat egiteko. Apirilak 10.

- Kalapiekin eta Olatu Talkak bilera bat antolatu zuten federazioekin, klubekin eta ekitaldian interesa izan zezaketen beste eragileekin ekitaldia aurkezteko eta lankidetzak bideak irekitzeko. Apirilak 16.
- Talde laguntzaileekin koordinazio bilera. Apirilak 29.
- Koordinazio bilera. Maiatzak 16.
<http://www.kalapie.org/nodo.php?lang=2&ID=544>
- Ziklobia Donostia eta Zubieta artean. Egun berean Kalapieren boluntarioria lana. Maiatzak 26.
[http://www.donostia.org/home.nsf/0/CEC1A11B2442C04EC1257B7800469546/\\$file/Olatu%20Talka%202013%20valoracion.pdf](http://www.donostia.org/home.nsf/0/CEC1A11B2442C04EC1257B7800469546/$file/Olatu%20Talka%202013%20valoracion.pdf)
- Balorazio bilera. Ekainak 13.

- **Martutenen Urumea bideratzeko proiektu alternatiboa**

- Txirrindulari martxa prentsarekin batera Txomin Enea eta Martutene bitartean Urumea korrituz ibaia bideratzeko proiektuaren aurrean aurkeztu dugun hautabidea azaltzeko. Otsailak 7.
- Martuteneko auzo elkarteari eta Urumearen aldeko bizilagunen plataformari proiektu alternatiboa aurkeztu genien. Martxoak 21.
- Proiektu alternatiboa Martuteneko Etxarriene kultura-etxean jendaurrean aurkeztu zen. Apirilak 12.
- Alderdi guztietako ordezkarien aurrean, Urumean egiten ari diren jardueren azterketa eta jarraipenerako Donostiako Udalak sortutako batzordean proiektu alternatiboa aurkeztu zen. Apirilak 24.

- URArekin (Eusko Jaurlaritza) bildu ginen. Maiatzak 6.
- Martutenen URArekin, auzoko bizilagunekin eta Udalarekin bildu ginen. Ekainak 11.
- “Paretari Begira” performancea Martutenen. Uztailak 20.
<http://martuteneauzoa.com/2013/06/07/bihar-manana-paretari-begira-ekintza-performantikoa-actividad-de-performance/>
<http://www.flickr.com/photos/59438695@N03/sets/72157634776342985/>
<http://gaur.donostia.org/es/los-vecinos-de-martutene-se-pondran-de-cara-a-la-pared/>
- “Paretari Begira” performancea Donostiako Frantzia pasealekuan. Irailak 21.
- Urrian zehar proiektua Loiolako kultura-etxean erakusgai egon zen.
- Martutenen Pilarreko jaietan proiektu alternatiboa azaldu zen. Urriak 12.
- Azaroan zehar proiektua Martuteneko Etxarriene kultura-etxean erakusgai egon zen.
- Abenduan zehar proiektua Egiako kultura-etxean erakusgai egon zen.
- Donostiako Udalean ordezkariak duten alderdi politikoekin bilerak egin genituen.
- Eusko Legebiltzarraren Ingurumen Batzordean parte hartu genuen.
- Donostiako Udalak Urumearen inguruan sortu duen batzordean parte hartu genuen.

• **Hirian bizikleta sustatzeko egindako ekintzak**

- Ibilaldiak bizikletaz 55 urtetik gorako pertsonekin. Hilero (hilabete bakoitzeko lehenengo astelehenean). <http://www.kalapie.org/nodo.php?ID=494>
- Kaskoaren derrigortasunaren aurkako txirringuluri martxa hirian zehar. Apirilak 13.
<http://irutxulo.hitza.info/2013/04/12/kaskoa-erabiltzea-derrigortzearen-aurka-bizikleta->

[martxa-bat-egingo-dute-bihar/](#)

- Cristina Enea fundazioak antolatutako HidroLogikak 2013 proiektuan parte-hartzea: “Urumeako ibaiertza bizikletan”. Maiatzak 11.
http://www.cristinaenea.org/GABINETE/gabinete_fichanoticia.php?queidioma=1&quenodo=1771
- “Urumeako erriberan zehar oinezko bisita gidatua”. Maiatzak 18 eta 19.
- Cristina Enea fundazioak antolatutako HidroLogikak 2013 proiektuan parte-hartzea: “Urumea ibaiertzeko baserriak”. Ekainak 8.
http://www.cristinaenea.org/Gestor/nodos/nodo_dok_din/HidroLogikak_LOW.pdf
- Hiria bizikletaz korritu genuen lokal berriaren irekiera aditzera emateko. Apirilak 21.
- Bizitruk: bigarren eskuko bizikleten azoka. Ekainak 8.
<http://www.donostia.org/home.nsf/0/FFF7E05D06F1A840C1257B820035B7A6?OpenDocument&idioma=cas>
- Guardetxea: Bizikleta konponketa eta moldaketa tailerra Kalapieren eskutik. Irailak 29. <http://guardetxeabandabat.org/es/guardetxeko/>
- Mugikortasunaren Astea: Ibaia bideratzeko proiektuaren hautabidea egon zen erakusgai.
- “Zure bizikletaren lapurreta saihestu” liburuxka argitaratu genuen eta bizikletentzako aparkalekuetan banatu genuen. <http://www.kalapie.org/nodo.php?ID=244>

• Txirrindularien irteerak

- Asteburuetan txirrindulariek Plazaolako bide berdea, Urolako ibarra, Bidasoako bide berdea eta Donostia-Arditurri ibilbidea egin zituzten, honako egun hauetan: ekainak 9, ekainak 23, uztailak 7 eta irailak 22.

• Erakundeekin harremanak

- **Donostiako Udala:**

- Mugikortasun Zinegotziarekin eta saileko hainbat teknikarirekin bildu ginen, Bizikletaren Behatokia, bidegorria sarearen egoera, lokal berria, aurrekontua eta etorkizuneko proiektuak, Olatu Talka eta Ziklobia, eta Urumearen bideratzea bezalako gaiak jorratzeko. Urtarrilak 15, otsailak 20, martxoak 20, uztailak 16 eta abenduak 11.
- Mugikortasunaren Aholku Kontseiluan parte hartu genuen.
- **Gipuzkoako Foru Aldundia:**
 - Gipuzkoako Bizikletaren Aholku Kontseiluan parte hartu genuen: urtearen balantzea eta hurrengo jarduerak.
- **Eusko Jaurlaritz:**
 - Kalapie Eusko Legebiltzarreko Ingurumen eta Lurralde Plangintza Batzordean agertu zen ganbera honi aurreko legealdietan hartu zituen konpromisoak betetzeko eskatzeko. Martxoak 20.
<http://www.parlamentovasco.euskolegebiltzarra.org/es/edukia/comision-de-medio-ambiente-y-politica-territorial-4>
 - Kalapie Eusko Legebiltzarreko Ingurumen eta Lurralde Plangintza Batzordean agertu zen oinezkoentzako eta txirrindularientzako bideen hiri-integraziorako eta garapenerako proiektua aurkezteko, Martutenetik igarotzean URAK Urumea ibaia bideratzeko duen plana dela eta. Abenduak 10.
<http://www.parlamentovasco.euskolegebiltzarra.org/es/edukia/comision-de-medio-ambiente-y-politica-territorial-22>
- **Cristina Enea fundazioa:**
 - Donostiako Udalak eta Aldundiak udalak eta herri-erakundeak bilera batera deitu zituzten Donostialdean bizikletaren egoera aztertzeko. Irailak 3.

- **Donostiako Zinemaldia:**

- Zuzendariarekin bildu ginen Zinemaldian bizikletaren erabilera bultzatzeko xedearekin. Otsailak 6 eta uztailak 23.

- **Weborriak eta gizarte sareak**

Weborria berritu egin da, baina helbidea mantenduz: www.kalapie.org. Hobekuntza bistakoa izan da: gure jarduera hobeto ezagutarazteko eta askoz txirringuluri gehiago ezagutzeko aukera eman digu. Gauza bera esan daiteke gizarte sareen erabilerari buruz: Twitter (@kalapiedonostia) eta Facebook (kalapiedonostia). Orain gure helburu berdinak dituzten erakunde eta pertsonekin harreman estuagoa mantentzen dugu, euren kokapen fisikoa zein den ere.

- **Bizikletarekin lotura duten hiriko denda eta enprekin bilera**

Azaroak 14an, Kalapieren lokalean bildu ginen hiriko denda askorekin garraio bide hau sustatu nahi dugun guztion ikuspuntu ezberdinak elkarri azaltzeko asmoz, ekintza bateratuak egiteko eta bakoitzak dituen baliabideak, batez ere informazio baliabideak, guztion zerbitzura jartzeko helburuarekin.

'Zure bizikletaren lapurreta saihestu' triptikoa aurkeztu ondoren, banaketa zerrendaren bitartez jasotzen dugun informazioa banatzeko aukera eskaini genuen.

Besteak beste, denda bateko ordezkariak proposatu zuen dendek bizikletaren erregistro datuak entregatzea eta bizikletaren fakturan datu horiek agertzea eskatzea, bezeroa datu horiek eskuratzeaz edota mantentzeaz arduratu ez dadin.

Jarduera honekin batera, Kalapieko kide batek ConBici koordinatzaileak sortutako 'Entidades Biciamigas' lantaldean parte hartu zuen, erabiltzaileak euren bizikletekin

onartzen dituzten zerbitzuen eta guneen berri emateko.

- **Mekanika ikastaroa**

Bizikletaren mekanikaren gainean eman genuen oinarrizko ikastaroan 14 pertsonen parte hartu zuten abenduak 2an, 3an eta 4an. Bertaratutakoen eta etortzeko aukera izan ez zutenen interesa ikusita, hurrengo hilabeteetan ikastaroa berriro egitea erabaki zen.

- **Bizikletan ibiltzen ikasteko ikastaroak**

Urtean zehar bizikletan ibiltzen ikasteko bi ikastaro eman dira, bata zero mailakoa eta bestea elementu basikoak menderatzen dituztenentzat.

Bata maiatzak 18an, 19an, 25ean eta 26an eta bestea urriak 5ean, 6an, 12an eta 13an.

2014 Otsailaren 12 - Donostian